

KAIXO!—Edonorri, edonon eta edonoiz «Kaixo!»-rekin agurtzen hasi zaigu gure giputz jendea. Egunon, arratsaldeon, gabon, agur, ongi-etorri..., edo antzerakoan ordezkoa betetze ustean.

Guk ezagutu genuen «Kaixo!», ez zen hori. Gure ustez «*qué hay*»-tik edo zetorren hitz horrek erdarazko «*¡hola!*»-ren balio soila zuen, eta adiskide artean edo konfiantza handiko ezagunen artean baizik ez zen erabiltzen. Edukazioz gabea eta errespetu faltakoa zen edonor, edonon, edonoiz «Kaixo!»-rekin agurtzea. Horrelakorik gertatzen zenean ordea, hitzetik hortzerako erantzuna prest edukitzen genuen:

—Kaixo!

—Ez dogu asko balixo.

Baina, orain, Euskal Telebistaraino ere iritsi zaigu agurtzeko era hori. Beraz, zer da debalatu dena, euskara ala telebista? Ala, ez ote dugu balixo.

ASMOZ TA JAKITEZ.—K. Bengoetxea jauna, zuk egin diguzun galde bera lehenago ere egin ziguten, baina ez zure deituradunagandik. Egia da Eusko Ikaskuntzak bere iragarritzat hartua: «Asmoz ta Jakitez» zuon deiturako epigrafearen esalditik hartua dela. Otoi, Bizkaiko Aulestia jatorrizko Bengoetxea deituratik, zeren Bengoetxeak jatorri bat baino gehiago bai dute, baina iragarki hori daroana Aulestiko Bengoetxearena da.

Behin baino gehiagotan agertua izango da noski, baina guk inprimaturik ezagutzen dugunetatik zaharrena Juan Karlos Gerrak 1904. urteko irailaren 27an Donostiako Euskal Jaietan irakurri zuen hitzaldikoa da. Hitzaldi horrek argitalpen bat baino gehiago izan ditu. Nik orain eskura aukeran dau-